



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 28an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko uztailaren hogeita zortzian, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK. - Ez dago instantziarik.

2.- PERTSONALEKO GAIAK. - Ez dago pertsonaleko gairik.

3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.

- 2020ko uztailaren 28an Ogasun Saileko Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko uztailaren 22an Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko uztailaren 14an Euskara eta Hezkuntza Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK.

- 224 zk: Zestoako "Gurutze" Jubilatuen Etxeko taberna-arteoaren ustiapen kontratazioko pleguak onartzea.
- 225 zk: C.A.P. andreari erantzukizun patrimonialeko espediente irekitzea.
- 226 zk: Baratze Parkeko 11 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena.
- 227 zk: Zestoako Udalari sozio-ekonomia aholkularitza zerbitzu kontratua luzatzea beste urtebetez S.S.C.L. enpresari.
- 228 zk: Sansinenean egiten ari diren pabiloirako kableak pasatzeko kanalizazioa egiteko obra baimen eskaera.
- 229 zk: Gurutzeaga kalea 3, 2C etxebizitzako sukaldean eraberritzeko obretako udal baimen eskaera.
- 230 zk: Baratze Parkeko 35 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena.
- 231 zk: Aizarnako Etxeberri baserriko teilatua eraberritzeko udal baimena.
- 232 zk: O.S.L. enpresari zehapen espediente irekitzea Arroako industriagunean udalaren baimenik gabe, ur-hargune batetik ura hartu duelako.
- 233 zk: Zestoako "Gurutze" Jubilatuen Etxeko taberna-aretoaren ustiapen kontrataziorako dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea.

- 234 zk: R.A.U. alkateorde bezala izendatuz.
- 235 zk: Festak bertan behera uzteko dekretua: Arroabea, Arroagoia, Aizarna, Zestoa.
- 236 zk: Lizarraitz auzunea 5ean luzeroa jartzeko baimena.
- 237 zk: Urnietako Udalaren ebazpena, M.H.A. izendapenari buruzkoa, ontzat ematea.
- 238 zk: Komun autogarbigarriaren kontratazioa hutsik deklaratzeko.
- 239 zk: V.S.S.R. enpresarekin kontratua ez luzatzeko ebazpena.
- 240 zk: Arriskutsua izan daitekeen animalia izateko lizentzia.
- 241 zk: O. enpresari Paisaia Ekintza Plana idazteko kontratazioa adjudikatzea.
- 242 zk: Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko 2020ko diru-laguntza deialdia egitea onartzea.
- 243 zk: Zestoako Eskola handitzeko Plan Bereziaren tramitea abiarazteko ebazpena.
- 244 zk: A. baserriaren inguruko kontsulta urbanistikoa, bi etxebizitza egin ahal izateko.
- 245 zk: Erdikalea 2ko fatxadan obrak egiteko baimena.
- 246 zk: Gesalaga kalea 6-8 eraikineko fatxadan konponketa lanak egiteko udal baimena.
- 247 zk: Txiribogako F.I.S.A. enpresako fatxadan konponketa lanak egiteko udal baimena.
- 248 zk: Zubimusu baserriko kanaloiak aldatzeko obretako udal baimena
- 249 zk: I.I.S.L. enpresari zehapen espediente irekitzea Sansinenea industriagunean ur kontsumoa neurgailu barik egitearren.
- 250 zk: Aizarnako plaza konpontzeko esleipena.
- 251 zk: Asuntzio kalea 3ko txabolarako atea egiteko obretako udal baimena.
- 252 zk: Artzubia aldeko ibardiaren berreskuratze eta hobetze lanen martxoan, apirila, maiatza eta ekaineko kamioi erregistroak.
- 253 zk: Uztapide plaza 1 eraikinearen igogailua 0 kotara jeisteko obretako udal baimena.
- 254 zk: Gurutzeaga kalea 3 2C etxebizitzako leihoak aldatzeko obretako udal baimena.
- 255 zk: Aizarnako Asuntzio kalea 13ko Etxezar etxearen teilatua aldatzeko obretako udal baimena.
- 256 zk: E.S.C. enpresak Sansinenean duen bilegi jarduerako baldintzen egiaztatpena aurkezten dute.
- 257 zk: Terrazan VTX sistema jartzeko kontsulta.
- 258 zk: Merendero-Bekoetxe aurreko parkina garbitzeko makina eskaera.
- 259 zk: Uztailaren 25ean, 30ean, 31n eta abuztuaren 1ean herriko tabernak ixteko ordutegia.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.

- 2020-07-17an (sarrera 880) Gipuzkoako Ur Kontsultazioak bidalitako agiria 2021erako prezioen aurreikuspenari buruz.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Alkateak berri eman du, hurrengo egunean Zestoako Udako egitarau kulturalaren aurkezpena egingo dela arratsaldeko zazpitan. Ekitaldietarako erreserbak Zestoako Turismo Bulegoan egin beharko

direla gaineratu du.

G. jaunari bertan izateko gonbita egin dio, udaleko zinegotzi bezala eta egitaruan parte hartuko duen artista moduan ere parte hartuko duelako.

Bestalde, uztaileko Udal Batzarra deitzeko gairik ez dagoela eta, ez dela deialdirik egingo adierazi du alkateak.

Azkenik, alkateak berri eman du, 2020-08-07an pilota profesional partidak antolatu direla eta ETB-ek emango dituela. Herritarrek lehentasuna izango dutela ere adierazi du.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:26ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,